

EUSKAL HERRI FRANTZISKOTARRARI BEGIRATU BAT

Joseba Intxausti
Historialaria

Hona Euskal Herriko frantziskotarrei buruzko liburu bat, haien historiari eskainia. Aita Ignazio Omaetxebarria-ren eskutik dator, beronek han-hemen sakabanatuta utzi zizkigun idazlanak batera eskainiz.

Gezurra dirudi, baina frantziskotarren historia hori gernikarren eskuetan dagoela esango luke batek. Gernikarra zen Aita Ignazio, eta hangoxeak izan ditugu Aita Juan Ruiz de Larrinaga eta beronen iloba Anjel Uribe, hemengo Probintzia frantziskotar nagusienaren lehen Historia orokorra eman diguna (*La Provincia Franciscana de Cantabria*. Arantzazu, 1988 eta 1996). Hirurok egindako azterlanetatik bizi gara, hein handi batean, historiako eremu honetan. Eta, gainera, beste gernikar batek, Aita Zelestino Solaguren-ek, ematen die segida horiei XIX. mendeko bere lan biografiko orokorrarekin. Kasik *Eskola* bat osatu dutela ematen du.

Beste hainbat zereginen artean, historialaria genuen Ignazio Omaetxebarria, eta ez da aherentzi behar, gainera, Probintzia erlijiosoko Historia idazteko lantaldearen buru ere izan genuela, Aita Pablo Letek halaxe erabakita (1951), Larrinagak, Uribek eta Lejartza zeanuritarrak osatzen zuten ikertzaile-laukotean. Proiektu hura ez zen orduan azken burura iritsi (hain zuzen, Omaetxebarria beste zeregin batzuetarako ere baliozko gizona zelako, eta Larrinaga 1954an hil zelako); gerora, parte

on batez, Uribek bete du hutsunea. Honen obran ere nabariak dira Omaetxebarriaren zantzuak.

Asmo hura gorabehera, Omaetxebarriak beti eutsi zion bere historia zaletasunari, eta aldizkari zientifiko eta hedatzaileetan lanik franko utzi zuen barreiatuta, baita frantziskotarren euskal historiaz ere. Omaetxebarriak zuen zientzi mailagatik, nahitaezkoa da honen obra sakabatu hori aintzakotzat hartzea, eta hauxe da artikulu-bilduma honek erraztu nahi diguna.

Autoreaz diogunari, gaiaz gehitu behar zaio bestetik. Euskal Herriko frantziskotarren alkantzu historikoaz dago hemen zerbait esateko.

1. EUSKAL HERRIKO FAMILIA FRANTZISKOTARRA (XIII-XVIII. MEND.)

Frantziskotarren familiarte erlijiosoa XIII. mendean sortua da, Asisko Frantziskoren eraginez (1182-1226). Hortaz, jatorriz italiarra da, eta erbestetik Euskal Herrira etorria, baina bertan ongi errotua. Iku-siko dugu.

Elkarte erlijioso frantziskotarrak Euskal Herri osoan egon dira presente, mendeak zehar, Herrialde guztietan alegia, eta gizonezkoak bezala emakumezkoak izan dira, hasi Erdi Arotik eta gure egunak arte, baina, esango dugunez, ez aldarte txar eta hobeagorik gabe.

Nafarroan, Araban eta Lapurdin jarri ziren lehenengo frantziskotarrak, XIII.en mendean bertan —fraideak eta moja klaratarrak—, laster, hurrengo bi mendeetan, Bizkaian ere izan zituzten bere egoitzak, eta Gipuzkoan batez ere XVI.ean izan zuten bere aukera *c.* 1497-1620). Oro har, beharreko nabardurak baztertu gabe, kronologia horrek era berean balio du fraide eta mojentzat.

Ordena frantziskotar ezberdinek, bakoitzak bere gisako historia bete dute, Elizak eta euskal gizarteak eskatzen zizkieten zerbitzuak eginenez eta eskainitako aukerez baliatuz. Alde horretatik, eliz erakundee-tan pisu erlatibo handia izan da elkarte frantziskotarrena, molde batez Aro Modernoan, eta bestez, Aro Garaikidean.

Erlijosoen beste Erakundeetan bezalatsu, frantziskotarretan ere, Ordena erlijiosoek garaian garaiko eskakizunetara egokitu behar izan dute, artez ala makurrez; batzuetan, modernia beren baitan zekartelako, eta bestetan, ezinbestean ere, gizarteak ezarritako baldintzen barruan.

Erakunde hauetan Euskal Herriak ez du batasunik izan, eta gutxia-go bakartasunik. Hau da, Erakundeon barrutiek ez dute Euskal Herria osorik eta bakarrik besarkatu; aitzitik, Penintsula eta Iparraldea, bakoitza bere bideetatik joan da. Euskal Iparraldeko komentu-eraikierak iparretik egin ziren, eta Hegoaldekoak, ostera, Nafarroako Erreinutik edo Gaztelatik. Honetan, Ordena erlijioso bakoitzak izan du berariazko ibilera.

Izan ere, hogeiren bat Institutu Erlijioso frantziskotar ezagutu ditu Euskal Herriak bere lurralde osoan. XIII-XVIII. mendeetan, gizonetzkoen artean hiru dira aintzakotzat hartzekoak (betiere fraide erlijiosoenkin ari gara, noski): frantziskotar komentutarrak (XIII-1567), frantziskotarrak^{ofm} (XV-XX. mendeak) eta kaputxinoak (XVII-XX. mendeak).

Garapen historiko horien parean, emakumezkoetan beste hiru Elkarte aipatu behar dira: klaratarrak (XIII-XX. mendeak), sorkundetarrak (XVII-XX. mendeak) eta elisabetarrak (XIII-1963). Moja hauek komentu edo monasterio itxietan egiten zuten bizitza, 1580tik 1620a arteko tartean klausura itxira behartu zituztenetik.

Elkarte ezberdin hauen komentu-sareak astindu larria hartu zuen XIX. mendean, fraideen komentu guztiak Frantzia eta Espainiako Estatuaren legez eta aginduz itxi zirenean (1792an Iparraldean, beranduenik 1840an Hegoaldean). Ondoko laukiko datuek erakusten digutenez, Esklaustrazio-bezperan, 58 ziren fraide frantziskotarren^{ofm} eta familia bereko mojen Etxeak Euskal Herrian: Araban 8, Bizkaian 15, Gipuzkoan 18, Nafarroan 14 eta 3 Lapurdin. Horietako 26 fraideenak ziren, eta 32, mojenak. Kaputxinoenak zenbatuz gero, Etxetan Ordena guztietako erdiak edo ziren frantziskotarrenak Hegoalde osoan.

Ondoko laukiak ematen digu, herriz herri, egoera haren berri.

ESKLAUSKLAUSTRAZIO-BEZPERAKO¹
EUSKAL HERRIKO KOMENTU FRANTZISKOTARRAK²

<i>Herriak</i> ³	<i>Elkartea</i> ⁴	<i>Sortze-urtea</i> ⁵
<u>ARABA</u>		
Argantzun	Frantziskotarrak	1615
Bastida	Frantziskotarrak	1447
Gasteiz-S. Frantz.	Frantziskotarrak	a. 1236
Gasteiz-Sorkundea	Frantziskotarrak	1648
Kanpezu-Piedrola	Frantziskotarrak	1447
Agurain	Klaratarrak	1611
Dulantzi	Klaratarrak	1593
Gasteiz	Klaratarrak	a. 1247
<u>BIZKAIA</u>		
Bermeo	Frantziskotarrak	1357
Bilbo-Santimamine	Frantziskotarrak	1446
Bilbo-S. Frantzisko	Frantziskotarrak	1475
Forua	Frantziskotarrak	1719
Urduña	Frantziskotarrak	1471
Areatza	Klaratarrak	1620
Balmaseda	Klaratarrak	1666
Bilbo-Abando	Klaratarrak	1558
Bilbo-Sta. Krutz	Klaratarrak	1603
Durango	Klaratarrak	1439
Gernika	Klaratarrak	1422
Portugalete	Klaratarrak	1550
Urduña	Klaratarrak	p. 1296
Bilbo	Sorkundetarrak	1526
Gordexola	Elisabetarrak	1450

<i>Herriak</i> ³	<i>Elkartea</i> ⁴	<i>Sortze-urtea</i> ⁵
<u>GIPUZKOA</u>		
Arantzazu	Frantziskotarrak	a. 1501
Arrasate	Frantziskotarrak	1582
Deba-Sasiola	Frantziskotarrak	1503
Donostia	Frantziskotarrak	1606
Elgoibar	Frantziskotarrak	1516
Tolosa	Frantziskotarrak	1587
Zarautz	Frantziskotarrak	1610
Azkoitia	Klaratarrak	1607
Elgoibar	Klaratarrak	1533
Oñati-Bidaurreta	Klaratarrak	1511
Tolosa	Klaratarrak	1612
Zarautz	Klaratarrak	1611
Arrasate	Sorkundetarrak	1511
Azpeitia	Sorkundetarrak	1497
Eibar	Sorkundetarrak	1634
Bergara	Elisabetarrak	1513
Oñati-Sta. Ana	Elisabetarrak	1501
Segura	Elisabetarrak	1519
<u>NAFARROA</u>		
Biana	Frantziskotarrak	1634
Erriberri	Frantziskotarrak	a. 1243
Iruñea	Frantziskotarrak	p. 1220
Lizarra	Frantziskotarrak	1265
Tafalla	Frantziskotarrak	1468
Tutera	Frantziskotarrak	1266
Zangoza	Frantziskotarrak	1250
Arizkun	Klaratarrak	1737
Erriberri	Klaratarrak	a. 1228/1803

<i>Herriak</i> ³	<i>Elkartea</i> ⁴	<i>Sortze-urtea</i> ⁵
Lizarra	Klaratarrak	1262
Tutera	Klaratarrak	1261
Lizarra	Sorkundetarrak	1731
Tafalla	Sorkundetarrak	1671
Lerin	Sorkundetarrak	1678
<u>LAPURDI</u>		
Baiona	Frantziskotarrak	1242
Ziburu	Errekoletokak	1611
Baiona	Klaratarrak	1326

1585eko datuen arabera, Euskal Herrian irekita zeuden 20 fraide-komentutan 463 fraide bizi ziren, hau da, bataz beste Etxe bakoitzeko 23 lagun pasatxoak⁶; orduko banaketa zera zen, Herrialdeka: Araban 3 komentu, Bizkaian 5, Gipuzkoan 4, Nafarroan 7 eta Lapurdin 1.

Artean, laster eraikiko ziren Etxe gipuzkoar berriak irekitzeke zeuden. Aro Modernoa amaitzeaz zegoela, milatik gora fraide frantziskotar zegoen Euskal Herrian, kaputxinoak ere zenbatuz. Estatistiketan, 1770 inguruan lortu zen unerik gorena.

Moja frantziskotarrei buruzko albistetan eskasago gabiltza, baina zerbait barrunta daiteke, Iruñeko Diozesiko moja-komentu frantziskotarrei buruz dakigunetik (1723). Zortzi komentutako lekaime-kopurua ezagutzen dugu⁷: 216 moja ziren guztira Elizbarruti horretan; komentuko 27 laguneko batezbestekoa ematen zuen horrek.

1797ko Godoy-ren Zentsuan Euskal Herriko komentuetan ikus daitekeen batezbestekoa apalagoa da: ez zen iristen 15 lagunetara. Zentsu horrek moja frantziskotarren 30 komentu zenbatzen ditu Hegoaldean, eta, esaten zaigunez, 439 lekaime ziren komentu itxi horietan.

Data haietan, egia da Konbentzioko Gerrateak (1794) estu hartu zituela komentu haiek guztiak, edo gehienak; baina, mendez aldatzeko

unean, artean osasun onean ageri zen sistema. Hogeita hamar edo berrogei urte geroago, erlijiosoen sistema instituzional hau oso bestelako egoeran aurkituko dugu, tartean gizarte eta politika liberalek ezarri zituzten baldintza berrien ondorioz.

Iraultza Frantsesak eta beronen ondoko olatualdi luze-zabalak bere xedeen artean izan zuten Erregimen Zaharreko sistema sozio-ekonomikoa iraularazi eta burgesia garailearen esan eta interesetara jartzea. Baina, horretara baino lehen, Frantzia bezala Espainian, XVIII.eko bigarren erdialdian Gobernu ilustratuek erakutsita zeukaten, jada, erlijiosoen erreforma baten gogoia, ahal zela Institutu Erlijiosoekin elkarlanean, eta betiere erreforma-xedeak urrunegi eraman gabe eta prozedurak zainduz.

XIX.ean, oster, Liberalismoaren proiektua (bere xede eta prozedura politiko berriekin) guztiz ezkontezina bilakatu zen Elizak eta Institutu Erlijiosoek indarrean zituzten ondasunen jabetasun eta kudeatze-sistemarekin: hura “iraultza” zen, ez “erreforma”. Eliz mundutik esan ohi zen bezala, Eliza bera ezabatu nahi zuten liberalek: hil ala biziko borrokatzat hartu zen arazoa, eta ezina gertatu bi aldeen arteko elkarrikeria. Arazoa politiko-ideologikoa ere bazen, eta halaxe ulertu zuten bi aldeek.

Iparraldean Iraultzak eta Hegoaldean liberal konstituziozaleek abiarazi zuten erlijiosoekiko proiektu berria.

Iraultzak, 1792an itxi arazi zituen Iparraldeko azken komentuek, Hegoaldean partez egingo zenari aurrea hartuz. Penintsulan gertakariak beste erritmo eta moduak izan zituzten.

Desamortizazio eta Esklaustrazio-saio ezberdinak ezagutu ziren Penintsulan, betiere saio bakoitzetik berriz ere bizirik ateratako erlijiosoen mundua gero eta ozpinduago uzten zutelarik. Horrela joan ziren gauzak 1808-1814.eko Erregimen josetarrarekin, eta berdintsu Hirurteko Konstituzionalean ere (1820-1823): Konbentzioko Gerratea gutxi izan bazen, beste bi ekitaldiok ongi markatuta utzi zituzten elkarren aurkako arerioak. Gerra bortitz eta odoltsu baten testuinguruan hartuko ziren, azken buruan, behin-betirako erabakiak, I. Gerrate Karlistaren testuinguruan, alegia (1833-1839).

Hortaz, handik honakoa beste historia bat izan da: lehen Esklaustrazioa (1792, 1840), Izanberrikuntza (1851 edo 1859tik aurrera), Bigarren Esklaustrazioak (Hegoaldean, 1868-1875; Iparraldean, 1880, 1903), XX. mendeko Institutuen garapena (1968a arte) eta azken krisi handia (1968etik hona).

2. ARO GARAIKIDEKO FRANTZISKOTARRAK

Adierazi dugunez, hemen espreskiago frantziskotarrei^{ofm} buruz ari gara hizketan; hala ere, beste Institutu frantziskotarrei buruz esan behar da zerbait, testuingurua aintzakotzat hartzeko bederen.

Aro Garaikidean ere “Familiarte frantziskotarrean” hainbat Ordena edo Kongregazio (=Institutu Erlijioso) ageri zaigu. Hegoaldeko moja itxiek, nola edo hala, berean biziraun ahal izan zuten, estualdi batzuk gorabehera. Eta gaur egun (2001. urtean), azken aldiko krisiari aurre eginez, 34 monasterio dira irekita daudenak Hegoaldean.

Gizonezkoetan, lehendik aipatutako Institutu esklaustratuak, oro har, denak izanberritu dira Aro Garaikidean; salbuespen bat bakarra izango genuke hemen, Ziburuko frantziskotar errekoletoen, komentuetxea zutik badago ere, Anaiarte ez baita izanberritu sekula.

Bestalde, Obserbantziaren inguruan beste hiru Ordena-adar bateratu ziren Leon XIII.aren erabakiz (“Batasun Leondarra” deituan, 1897), baina horrek ez zuen ondorio berezirik izan Euskal Herrian, lehendik etxe bat bakarra baitzegoen gurean beste hiru Ordena horietakorik (Ziburukoa, berriz ere). Komentutarrak eta kaputxinoek, ordea, Batasun horretatik at geratuak, beren bidea egin dute Euskal Herrian. Komentutarrak, Felipe II.aren eliz politikaren poderioz Euskal Herriatik desgertutakoak alegia (1567), juxtu lau mende geroago itzuli dira Nafarroara, eta gaur arte bertan diraute (Elizondo, Gazolatz, Berriozar).

Kaputxinoen historiak arrasto jakina utzi du gure artean, Nafarroan batik bat, baina baita Gipuzkoan eta Iparraldean ere. Nafarroa-Kantabria-Aragoiko Probintziak oraintxe bete du bere izanberritzearen lehen mendeurrena. Garai jakinetan Nafarroan eta Iparraldean egindako eliz lan handiaren ondoan (Hirugarren Ordena zainduz, adibidez),

gogoratzekoa da kulturari egin dioten ekarria, bai Etxe jakin batzuetatik (Lekarozko Ikastetxea, Errenteriako Eresbil), bai fraide jakin batzuren bidez (Aita Donostia, Intza, etab.). Azken mende eta erdian, Euskal Herrian, gutxienez, hamalau Etxe izan dituzte kaputxinoek, bizialdi laburrekoak zenbatu gabe.

Horiek horrela, lehenagoko historiaren segida izanberritua diren horien guztien ondoan, datu zinez berria zera da: Kongregazio erlijioso berriena.

Institutu hauetako 80ren bat Etxe frantziskotar zenbatu ahal izan dugu Euskal Herrian Aro Garaikideko bigarren parte honetan, 16ren bat Institutu ezberdinetakoak. Hauetan, gizonezko Institutu bakarra izan dugu, Hirugarrender Kaputxinoena alegia. Hauei guztiei buruz hemen deus esango ez dugun arren, presentzia hau azpimarratzekoa da, zeren Kongregazio moderno hauek ez baitira klausurakoak izan, jarduera pastoral-sozialera emanak baizik, gehienetan Irakaskuntza eta Osasun munduan jardun direnak.

Eta gatozen “frantziskotar” deituetara (frantziskotarrak^{ofm}).

Bi barrutitan banatuta bizi izan dira Euskal Herriko frantziskotarrak: Hegoaldea Kantabria edo Arantzazuko Probintzia deritzan barrutian bildu zen, eta Iparraldea Akitania-aldeko segidako barruti ezberdinei lotuta ibili da. Egia esan, frantziskotarrek Etxe bakarra izan dute Iparraldean, lehen komentua Nafarroa Behereko Donapaleun sortu zeneetik (1851), eta ipar-euskaldun frantziskotar gutxi izan da mende eta erdi horretan, nahiz eta gutxi horietako zenbait historiara ere pasa den (K. Urrutibeheti eta Erdozaintzi-Etxart).

Historian lehenengo aldiz, 1880an Hegoalde frantziskotar osoa eremu juridiko bakarrean hartu zen, Erriberriko komentuarekin batera Nafarroa osoa Arantzazuko Probintziara atxiki zenean. Bestalde, esan behar da Probintzia honek ez duela Euskal Hegoaldea bakarrik bere baitan, garai batez Aragoi eta oraindik Gaztelako parte handi bat ere bere lurraldean baititu. Erran gabe doa, Madrilako Etxeak (hiru ere bai inoiz) eta Penintsulaz kanpoko Etxeak (Misio eta Kustodietakoak) gogoan hartzekoak direla, baina hemen ez gara horietaz ari.

189 Euskal Herrian ez ezik Frantzian eta Penintsulan zeresan handia izan zuten izanberritzeari ekitean gure Herriko fraideek, zeren eta Aita Aresok Donapaleun irekitako Etxea Frantziako beste Komentu eta Probintzien hastapena izan baitzen eta Estarta guztiz goiztiarra gertatu baitzen, Bermeoko komentua irekitzean. Jakina da Penintsulako izanberrikuntzan Priego-Cuencakoan euskaldunek izan zuten tokia (1856) eta Katalunian, Vic-ekoa nola Estarta larrabetzuarraren babespean ireki zen. Bi fraide-mintegi ardatzak izan ziren horiek, geroago Frantziatik iraitzita (1880) Donapaleu inguruko fraide aresotarrek Sevillan irekitako Loreto bezala.

190 Esan behar da, beraz, frantziskotar euskaldunak -Euskal Herrian bertan izan dituzten etxeez eta lanez gain- erabakiorrak gertatu direla Frantzia eta Espainian ere Ordena izanberritzeko, garrantzizko zenbait unetan. Deus gutxi aipatu izan den gure beste Diaspora hau ere ezin da ahantzi. Antzeko zerbait gogorarazi behar da, gainera, Ekuador, Peru edo Bolivian XIX. mende zailean (pentsa daitekeenez, Independentziak eta Gobernuen berehalako eliz politikek egoera zailak sortu zituzten) hainbat frantziskotar euskaldun aurkitzen dugula hango Komentu eta Misiolari-Kolegioak sostengatzen, eta izanberritzeko Probintzia berriei oinarriak ematen.

191 Hemen Kantabria edo Arantzazuko Probintziara gatzozela, Ordenaren barruan berau izango da laster Penintsulako eremu eta lagunartek handietakoena. Pertsonalaren aldetik, bere sabaia 1960. etako hamarkadan jo zuen, 754 fraidetaraino iritsiz (ez, noski, denak Euskal Herrian lekutuak); Arantzazuko Komentua 173 fraide izatera iritsi zen orduan. Mende beteko ahaleginen eta garaien fruitua izan zen hori.

192 Fraide-talde horrek bere erlijioso-erreferentzia nagusienak Euskal Herrian izan ditu, gehienak euskal herritarrek zirelako, heziketa-etxeak eta barne-ikastetxeak gure Hegoalde honetan zituelako eta Probintziako gobernua ere, aurreko arrazoen ondorioz, euskal herritarrek eraman dutelako. Arantzazu, Forua, Zarautz eta Erriberrin egon ziren heziketa-etxeak orain hogeita bost urte arte. Azken urteetan Probintzia erlijioso horrek sustatu duen dinamikarik erlatiboki biziena ere Euskal Herrian lekutu dela esan daiteke.

Dena den, Gaztelan izandako Etxeak (dozena-erdi bat nagusienak) edo Penintsulaz kanpoko hedapena (Ameriketan: Peru, Bolivia, Paraguay, Uruguay, Argentina, Karibe-aldean Kuba, Puerto Rico, Santo Domingo, etab.; Asian: Txina, Korea, Japonia) ezin dira aipatu gabe pasa. Hauek dira lehentxeago aipatu dugun XIX. mendeko hedapen haren segida eta luzapena, nahiz eta XX.eko hau modu organiko eta antolatuagoan gertatu den. Horieta bakoitzak du historia interesgarri bat.

Denaren sostenguak eta pilare irmoak, hein handi batean, Euskal Herrietako Komentuak izan dira, kopuruz ez gehiegi, baina bai herrian ongi txertatuak, eta halakoak izan diren neurrian fraidegai gazteak erruz bildu zituztenak. Denboraren harian urratsez urrats ugarituz joan ziren komentudun herriak:

<i>Komentu-herriak</i>	<i>Sortze-urtea</i>
Donapaleu	1851
Bermeo	1859, 1895
Zarautz	1867, 1876
Arantzazu	1878
Erriberri	1880
Espejo	1885-1891
Forua	1886
Tolosa	1915
Donostia	1923
Bilbo-Irala	1930
Arrasate	1953
Gasteiz	1973
Iruñea	1976

Izendegi honek ez du, noski, agortzen frantziskotar Etxeen (handi eta txikien) zerrenda, batez ere “Anaiarte Txikiak” deitu direnak jaio baitira azken hiru hamarkadatan, etxebizitza arruntetan jarri direnak, sarritan berariazko elizarik gabe, frantziskotartasunaren jatorrizko ikusmolde eta bizieretara itzuli nahirik eratu diren Anaiarte Txikiak. Honelako hamazazpi zenbatu ditugu Euskal Herrian 1968-1999. urteetan. Batzuek bizialdi laburra izan zuten (Eibar, 1968-1969), zenbaitek luzeagoa (Donostia-Kaialde, 1970-1982; Gernika, 1973-1994; Karrantza, 1975-1997; Erretereria-Zamalbide, 1977-1991), edo pasaerakoa (Gasteiz-Apraiz); talderen batek edo bestek -lekuz aldatuz edo toki berean finko- indarrean darrai gaur arte (Durango, 1966...; Obanos, 1969...; Beasain/Segura, 1972...; Donostia-Jakin, 1978...; etab.).

Esperientzia oso libreak izan dira Anaiarte Txikienak, aldakorrek, beren artean jarduera eta bizimolde ezberdinekoak; komentu klasikoaren kontra-eredu malguago eta “ibiltariagoa” sortu nahi izan dute, lehen orduko frantziskotarren eredutik hurbilago egon daitezkeenak, egitura instituzional eta material handietatik ihes eginez. Kontzilio-ondoko itsasgorak ere lagundu du honetan.

Izaberrikuntzatik honako mende eta erdiak (1851-2001) leziorik utzi digu Erakunde Erlijioso hauen eta frantziskotarren ibilaldi honetan. Euskal Herri erlijioso eta zauritu batean, fraide-mojek lekumen erosoan lortu zuten 1900-1965. urteetan, eta frantziskotarrek ere bai. Herritarrekin elkartzean, frantziskotarren artean Hirugarren Ordenak eta predikuak pisu oneko eragina izan zuten, mende hasieratik bertatik; badirudi, estatistikek eta jarduera-eremuak ongi frogatzen dutela hipotesi hau frantziskotarren kasuan.

Frantziskotarretan, gainera, ezingo da ahantzi Arantzazuko Santutegiari zor dioten arrakasta. Beste zenbait Ordenak ere Santutegien hau zaindu izan du (beneditarrek Estibalitz, josulagunek Loiola eta Xabier, edo pasiotarrek Angosto, adibidez), baina Arantzazukoak lehendik zekarren esanahi historikoarekin eta kudeakuntza trebez badirudi hobeki lortu duela oihartzun sozial eta erlijiosoa segurtatzea. Frantziskotarrek, beraz, dezente zor diote Santutegi horri ere, beren euskal hedapenean.

Kontzilio-ondokoa gogorra ari da gertatzen eliz Institutu Erlijio-soentzat, gizarteko krisi erlijioso-instituzionalak bete-betean harrapatu baititu guztiak Euskal Herrian eta Mendebaldean. Frantziskotarrak ez dira honetan inolako salbuespena.

Kasik lau hamarkadatan egokitzapen ahalegina ez da makala izan, zenbait aldetatik: Arantzazun, adibidez, liturgi munduan euskarazko tresneria oso bat sortu da; komentuetan, ekonomia, lan-moldeak eta lagunarteko bizitza oso errotik aldatu dira, eta, agian esperoko ez zena, baita otoitz-moduak ere. 1920ko fraide-bizitza frantziskotarra gertuago zegoen, seguraski, XIV.eko komentu-eredutik, 2000. urtekotik baino. Halakoxea izan da aldakuntza!

Frantziskotartasunaren erakarmenak ez dirudi indarririk galdu duenik (nire irakurgaietan berriki topatu ditudan bi lekuko on aipa nitzaizke: J. Le Goff eta R. Rémond, kristau-historiari eta Europari begira egindako lanetan); hala ere, garbi dago, erakunde bezala, hautapen zaileko bidegurutzean dela 800 urteko historia hori. Horregatik ere, Omaetxebarriaren liburu honek eman dezake zer pentsa, eta berone-tako edukiaz esan nahi dut zerbait.

3. OMAETXEARRIAREN EKARPENA ETA IBILERA

Frantziskotarren historiari Omaetxebarriak eskaini dion lana oso zabala izan da, Euskal Herrikoaz eta mundukoaz, eta kazetaritzatik liburu berezietarainokoa da, betiere berezilari batek izan dezakeen fidagarritasuna galdu gabe, baina, halakorik zenean, kazetal lanak oin-oharreztatu eta iturriak eta bibliografia zehazki ematen ibiltzeke, noski.

Bestalde, frantziskotartasunaren munduko historiarako bi obra orokor guztiz oinarritzkoak Omaetxebarriari zor dizkiogu. Erromatik mundu osoko moja frantziskotar itxien arduradun izan zelarik, parada egokia izan zuen herri guztietako albisteak sistematikoki biltzeko. Lan horri esker eta autoreak zuen ezagutza historikoez baliaturik, oso aipatuak diren bi obra ditugu eskueran, Euskal Herria ere munduko testuinguruan lekutzen dutenak: *Las clarisas a través de los siglos* (Madrid: Cisneros, 1972) eta *Las monjas concepcionistas* (Burgos, 1973). Bi

Institutu hauek hurrenez hurren XIII. eta XVI. mendeetatik hona lekaime itxien artean izan duten kopuruzko garrantzia ezagutzen duenak susma dezake zenbatekoa den honelako sintesi orokorren balioa, eta idatz-zailtasuna ere.

Baina gu Euskal Herrikoaz ari gara batik bat, eta liburu honetan bildutakoaz.

Hiru sailetan banatu da liburua. Lehenengoan, Euskal Herriko frantziskotasunaren XIII. mendeko hastapenak gogorarazi nahi zaizkigu: San Frantziskok Penintsula Iberiarrera egin omen zuen bidaia (1214koa, agi denez); gertakari horrekin loturik eman izan den Zangoza ondoko Rocaforte-ren historia-legenda, eta, zabalago, Nafarroako lehen komentu-sarearen sortzea eta Kustodia barrutiaren eraketa.

Bigarren sailean, Hiru Probintzietako zenbait Etxe eta Egoitzaren berriak biltzen dira, *miscelanea* ireki batean, iragan zaharra (Gasteiz, a. 1236; Bermeo, 1357) eta gaurkotasuna elkartzuz (Kristobaldegiko sorkundetarrak, Bermeoko klaratarrak, etab.). Hirugarren sailean, Omaetxebarriak oso maitea izan zuen alor biografikoa jasoko du, zortzi pertsonaia handiren inguruan bere glosa historikoak eginez.

“Glosak”, diogu, zeren oparoa baita Omaetxebarria historialariaren etorria, eta une bakoitzean hautatu duen bide nagusian, eta bertatik, bidezidor ustekabez sareztatua izan ohi da idazle honen ibilera. Kazetari lanean dabilenean erakusten du Omaetxebarriak bere kultura eta jakiteen aberastasuna. Abila da ideiak eta iradokizunak txirikordatzen, batetik bestera keinu bizkor bat eginez iragaten, azkenik bide nagusira itzultzeko. Honetan, bere akademikotasuna librea da, trabarik gabea, bide hesituegietatik ihes egiten aparta, betiere irakurle jakin-minaren mesedetan mila bide berri marraztuz.

Honegatik, oharturik ibili behar du irakurleak: normalean, idazlan baten izenburuak ez du sobera mugarriztatzen testuan topa daitekeen dena. Biografietako adibideren bat nahi balitz, begiratzekoa da Arkaia-rena: pertsonaia gogoan du idazleak, baina aldi berean — aurretik eta inguruan — haren inguru historikoari jorraldi eder bat emango dio. Idaztean irekitzen dizkigun erregistro berriok balio aberasgarria dute irakurlearentzat.

Gai eta tesi maiteago batzuk ere baditu autoreak. Hauetako bat da historialari gaurkotuenek, orokorrean, ez ikusi egin edo alborantz uzten duten San Frantziskoren Penintsularako bidaia. Testu ugari landu du gai honi buruz Omaetxebarriak, jakitate anitz eta bihotz handia jarri, gainera, eta -dena esan behar da- ikertzaileak sobera komentzitu gabe. Ikusi besterik ez dago aipatutako Uriberen liburuan arazo hone-taz eman den azalpena, lagunarekiko itzal handiz egina, baina haren tesiko arrastoan garbiki sartu gabe burutua (Uribe 1988: 45-67).

Hala ere, erraturik ibil daitekeen kasurik okerreanean ere, ia beti da irakurtzekoa Omaetxebarriaren lana, agerian duen ikusmuga irekia-gatik. Baliozkoa da ados gaudenean bere arrazoi eta azalpenetan; baina baita komentzitzen ez gaituenean ere, bere arrazoibide eta argibide konplexuengatik, azalpenerako bertarako ez ezik gerorako ere galderez betetako testuak baititu idazleak.

Kronika zaharren, tradizio herritarren eta agiri idatzien arteko lotu-rak egin, eta iturri ezberdinotan ikusitakoaz baliaturik, ondorio histori-koak ateratzen bereziki artetsua da Omaetxebarria. Lanbide honek ba-du zer irakats artxibategi gorrian, eta hor bakarrik, lan egin nahi duen historialariarentzat. Liburu honetako ikasgai metodologiko bat da hau.

Euskal Herriko frantziskotarren ibilbide historikoa eremu zabala-goetako gertabideetatik so egiteko begi atzarria du Omaetxebarriak, adibidez Santiago Bideko garapen erlijioso-kulturaletik hasi eta Orde-nako Erreforma gaztelauetaraino. Hainbat puntu historiko ulertzeko hari nagusiaren inguruan ezker-eskuin egiten dituen iradokizunak go-goan hartzekoak dira Omaetxebarriarengan, eta liburu honetan ere bai.

Kritikari bezala, Omaetxebarriarekin zintzo izateko, ezinbestekoa da idazki bakoitzaren argitalpen-aldizkaria gogoan izatea, zeren eta, bestela, ondoko ohar xumeak guztiz lekuz kanpo egongo bailirateke. Omaetxebarriak hainbat aldiz historialari berezituentzat idatzi zuen (Madrileko *Archivo Ibero-Americano* aldizkarian, e. b.); baina, biga-rrren maila batean, asko dago liburu honetan Ordenako barne-aldizkari batean emandakorik (*Cantabria Franciscana*-n, esan nahi da), eta sa-riago oraindik eliz aldizkari xumeetan emandakoa (*Arantzazuko Mi-siones Franciscanas*-en, esateko), edo egunkarietan ere (1960. etako

Diario de Navarra-n). Hori dena orain liburu gisara emana ikustean, halaberharrez muga batzuk agerian daude.

Horregatik, liburu honen parte on bat hedapen- eta dibulgazio-lantzat jo behar da, eta ez darama historialari berezituak nahiago izan lezakeen azalpen-metodorik (albiste-iturrien erreferentziak eskas dira, eta unean uneko baieztapenaren iturri-oinarriak -autorearentzat ezagunak zirenak- bere kontura bilatu beharko ditu historialariak, anitz lan oharretzatu gabea dagoenez). Hala ere, testuak pizten dituen argientatik ez zaio faltako interesik berezilariari ere.

Omaetxebarria korrika batean bizi izan zen, batetik bestera, eremu ezberdinetako zereginetan aldi beretsuan murgilduta, eta denetatik denetarako langaiak jasoz. Agian, bere Erroma-aldia eman daiteke lan sistematikorako zentratuentzat, baina orduko lana batez ere mundu osoari begira egina izan zen, bere ardurapean zuen moja itxien munduari arreta osoa emanez, eta ez bereziki gurekoari so zela.

Eliz Erakundeen barrutik lan egin zuen Omaetxebarriak, eta hori ez du berak sekula ezkutatu, agerian utzi baizik. Batez ere nabaria da jarrerara Aro Garaikideaz ari denetan; baina, orduan ere, bere testuek badute halako duintasun eta aberastasun intelektual ukaezin bat, baita bere lumari izenondo erasokorragorik darionean ere.

Inoiz euskararen inguruan elkar-lanen bat buru genuen elkarrekin (1959), baina ez zitzaigun egokitu historia frantziskotarrean batak bestearen ondoan jardutea. Gaur, Aita Ignazio hilda dugula, damu naiz "ofizioko" elkarrizketarako hark egin ziezadakeen ekarpenaz garaiz ez baliatu izanaz. Dena den, hark idatzitako asko hemen dago, moldezko letretan, eta nik behintzat jaso beharreko ondareztat daukat bilduma honetan Joseba Ertxeberriak eta Paulo Agirrebaltzategik hautatu digutena.

Eskerrik asko idazleari eta biltzaileei, Euskal Herriko historia erlijiosoaz gorde eta erabiltzeko utzi diguten altxorragatik.

Notas:

- ¹*Esklaustrazio-bezpera* esatean zera adierazi nahi da: a) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako 1835ko urtea (Larrinagak 1949an egindako mapari jarraikiz); b) Nafarroarako, XIX. mende-hasierako datuak darabiltzagu; c) Iparralderako 1792ko esklaustrazio-datak balio du.
- ²*Frantziskotarrak* esatean, fraideetan Obserbantziaiko (*ofm*) eta Errekolesioko (Ziburu) komentuak jasoko dira bakarrik; mojetan, frantziskotarren^{ofm} menpekoak. Aro Modernoko garai bateko komentutarrak (Euskal Herritik 1567an erabat desagertuak) eta halako garrantzia zuten kaputxinoak (Nafarroan bereziki) ez dira hemen zenbatu, Omaetxebarriak aztertu duen erakunde-eremura mugatzen garelarik.
- ³*Herriak*: Herriak eta, behar denetan, Auzoa emango da hemen. Ikus daitekeenez, herri bakoitzean komentu bat baino gehiago egon daiteke: fraidetan, hori da Bilbo eta Gasteizen kasua, adibidez. Aski sarritan, gainera, herri berean fraide eta mojen komentuak daude, aldi berean (Hiribu gehienetan, noski, baina baita herri handietan ere: Arrasate, Tolosa, Zarautz, etab.).
- ⁴*Elkarteak*: Titulu honen azpian komentuari dagokion Ordena edo Institutu erlijiosoa adierazten da; baina ezin da ahantzi Etxe bakoitzaren atxikimen instituzionala aldakorra izan dela mendeak zehar, eta ez bakarrik, e. b., fraide frantziskotarrak segidako erreforma ezberdinetakoak izan direlako (Komentutarrak, Obserbantziakoak, Errekoletakoak), baizik eta mojetako Etxe zenbait Hirugarren Ordenako lekaime izatetik (elisabetar, adibidez) Sorkundetar edo Klaratar izatera pasatu direlako ere. Hemen, XIX. mendeko lehen partean Etxeok zuten atxikimen instituzionala konstatu nahi izan dugu, ez besterik (aurreko edo ondoko bestelako atxikimenak aipatzeke). Frantziskotarrak^{ofm} eta frantziskotar errekoletakoak, eta guztion menpeko lekaime-komentuak dira soilik hona ekarri ditugunak.
- ⁵*Sortze-urtea*: Komentuen sortze-kronologia partez dago bakarrik behin betirako erabakita historialarien artean. Ahalik hurbilpenik leialena egiten saiatu gara, eta zalantzaren bat izan dugunetan Omaetxebarriaren hobespentara jarri gara hemen (Lerin edo Tafallako sorkundetarren kasua, etab.).
- ⁶ Zifra honek, nik neuk inoiz oker emandako 624 laguneko kopurua zuzendu nahi du.
- ⁷ Lau monasteriotako zifrak falta zaizkigu hor: Oñati-Bidaurreta, Oñati-Sta. Ana, Tartera eta Lizarra.